


## Handitu egin da EAEn atzerritar gehiegi daudela uste duten gazteen ehunekoa

### *Immigrazioari buruzko estereotipoei aurre egitea da Gazteen Euskal Behatokiak 2013ko formakuntza egitasmoan duen helburuetariko bat*

EAEko gazteen % 45ek uste dute EAEn atzerriko immigrante gehiegi daudela.

Datuok [Gazteen Euskal Behatokiak](#) 2012an EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri egindako inkesta baten emaitza batzuk dira.


EAEn atzerritar gehiegi daudela uste duten gazteak gero eta gehiago dira eta 2000 urtetik hona goranzko joera mantendu du pertzepzio horrek gazteen artean.



[Immigrazioaren Behatokiak](#) bildutako [estatistikak](#) oinarri hartuta, ikus dezakegu EAEn bizi diren atzerritarren egiazko ehunekoa dezente igo dela azken urteotan eta, zehatzago, 2008tik 2012ra igoera hori % 28koa izan dela.


Igoera hori jendearen pertzepzioan islatuko zela argi dago. Baina deigarria da EAEn dauden atzerritarrak gehiegi direla deritzoten gazteen ehunekoa handitu izana (% 18ko igoera izan du 2008tik 2012ra) eta ez atzerritarrak asko samar, baina ez gehiegi, direla uste dutenena; izan ere azken aukera hau lehen baino gutxiagok aipatu dute (% 13ko murrizketa izan du 2008tik 2012ra).

Hau da, EAEn atzerriko populazio gehiago izateak hauxe ekarri du: gazteek atzerritarren kopuruari buruzko pertzepzio negatiboagoa izatea.



Krisiaren eragina eta langabezia zabaltzea (16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean langabezia hirukoiztu egin da azken lau urteotan eta 2008an % 7,3 izatetik 2012ko hirugarren hiruilekoan % 22,6 izatera pasatu da) izan daitezke immigrazioaren pertzepzioan eta horren kudeaketari buruzko iritzietan ondorioa duten arrazoiren batzuk.

Atzerritar gehiago daudela uste ez ezik, atzerritarren sarrera debekatu behar dela deritzotenen ehunekoa ere handitu egin da gazteen artean eta 2012an gazteen %10 iritzi horretakoak dira. Edozelan ere, jarrerarik hedatuena ez da hori, baizik eta sarrera lan kontratua dutenei bakarrik erraztu behar zaiela deritzotenenena (% 63). Azkenik, etorkinen sarrera ahalik eta gehien erraztea litzatekeela egokiena uste dute beste % 18k.



Krisia egoera aproposena da atzerritarrei buruzko estereotipo negatiboak zabaltzeko, eta estereotipo horien gainean oso erraz eraiki daitezke diskurtso xenofobo eta diskriminatzaileak.

Aniztasuna errespetatzen duen gizarte kohesionatua eraikitzeko asmoz Eusko Jaurlaritzako Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak estereotipo horien kontra egiteko ekimena bultzatu du: "[Aurre egin zurrumurruari](#)". Ekimen horrekin benetako eta egiaztatutako informazioa zabaltzen da immigranteei buruzko iritzi okerrei edota irreali aurre egiteko.

Kanpaina horrekin bat eginez, Gazteen Euskal Behatokiak 2013 urteko formakuntza planari hasiera eman dio ondoko ikastaroarekin: "[Nola aurre egin immigranteei buruzko aurrejuzkuei eta zurrumurruei gazteekiko hezkuntza-jardunetik?](#)". Ikastaroa urtarrilaren 29an, 30ean eta 31an izango dugu eta bertan ondoko irakasleek parte hartuko dute: Xavier Aierdi (Begirune-EHU), Felix Etxeberria (EHU), Rosabel Argote (CEAR Euskadi) eta Elena Ayarza (Arartekoren Haur eta Nerabeentzako Bulegoko zuzendaria).

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

